

## ARDIAK ETA BEHORRAK

Oso oker ez banago, duela hamabost bat urte arte, igoal gutxiago, Donostian ez zen *MacDonald's*, *Burger King*, *Pizza Hut* edo antzeko multinazional estatubatuarren jatetxerik. Bisitan zetozkigun estatubatuarrek ezin zuten sinetsi hasieran. Esplikazioa asmatzen erraza zen, hala ere, egun batzuk pasata: «bertako gastronomiaren kalitatearekin zeinek izango du ba hanburgesa nahiago?» Edo: «bistan da euskaldunok zuen kultura gordetzeko erakutsi duzuen kemenak; zer dela-eta bestela bizi da oraino euskara?» Zenbat *MacDonald's* daude gaur Donostian? Zer jan nahi dute gure haur eta gaztetxoek? Argi dago: gerra hori irabazi digute.

Aspaldian igande arratsalde zinean izan bazarete, beste hau ere onartuko didazue: jende gehienak palomita, coca-cola eta nahikoa zarata ateratzeko moduko azala duen edozein litxarrerria lardaxkatzen pasatzen du proiektzio osoa, ondokoa izorratzen duen ala ez batere inporta ez zaiola. Lehen ez tulak ziren problema handiena, gero *telefoninoak*. Baina palomita... Ez nuen sekula uste izango gure artean ohitura amerikar horrek hainbesteko arrakasta izango zuenik. Horretan ere irabazi digute (nahiz eta hemen oraindik ez dieten, han bezala, gainean gurin koipetsua botatzen).

Texaseko gobernadore ohiak Gerra Saindura deitu duen honetan –Justizia Infinituaren, hots, Jainkoaren izenean deitu ere- onartu beharra dago estatubatuarrek gerra txiki asko irabazi digutela honez gero eguneroko bizimoduari, hots, kultura arruntari dagokionez. Eta guk, galtzaileok, agur eta ohore egiten diogu irabazleari. John Wayne erreakzionario koldarra jarri dute Donostiako zinemaldiko ikur: John Wayneren ibilkera okerreko itzala saio guztien buru. Koldo Izagirrek igandean zioskunez, Marlene Dietrichek esana da oso dotore egiten zuela narrutan Waynek bere behorarekin. Ardiekin, berriz, uste dut nik, ezin hark leziorik eman hainbat artzain euskaldun bakartiri.